

UDA 2026

UDAKO IGERILEKUEN IREKIERA

Ekainaren 7tik, igandea, irailaren 6ra, igandea, biak barne. Jolaserako igerilekua 16:30etik 21:00etara baino ez da irekiko lanegunetan, ekainaren 18ra arte. Larunbat, igande, jaiegun eta lanegunetan, ekainaren 19etik aurrera, igerileku guztiak zabalik egongo dira 10:00etatik 21:00etara puublikoarentzat.

IGERILEKU ESTALIA: igerileku estalia uztailean eta abuztuan itxita egongo da.

ABONURIK GABEKO PERTSONEN SARRERA

2026eko udako kanpainan, abonaturik ez dauden pertsonen udako igerilekuetara sartzen utziko zaie, baldin eta abonaturen batek gonbidaturik badaude eta baldintza hauek betetzen badituzte:

1. **18 urtetik gorako** abonatu batek eskatu behar du abonatu ez diren pertsonen sarrera. Horretarako, sarrera-kontrolan dagoen txantilo bat bete behar du (sartzeko unean betetzen da).
2. Abonatutako pertsona batekin batera sartzen diren abonaturik ez dauden pertsonak, gehienez ere **4 lagun izanen** dira.
3. **Soilik lanegunetan** (asteleheneretik ostiralera, jaiegun ez direnean) abonatura ez dauden pertsonekin sartzeko posible izango da.
4. Instalazioetan sartzeko ordenantzan ezarritako tarifa ordainduko da ("lan egunetan"):
 - **Haurren** sarrera (4 -13 urte).- *6,15 euro*
 - **Gazteen** sarrera (14 -17 urte).- *8,20 euro*
 - **Helduen** sarrera (18 urtetik aurrera).- *12,25 euro*
5. **Abonatu batekin doazen 80 urtetik gorako eta 4 urtetik** beherako pertsonak ez dute instalaziora sartzeko inolako tasarik ordaindu beharko.

EREMU BERDEA ETA IGERILEKUAK ERABILTZEKO ARAUDIA

- Instalazioetan sartzeko aurpegi errekonozimendua edo abonatu txartela erabiliko dira, azken hau besterenezina da.
- Ezin da jan eremu berdeetan edo igerilekuen bazterretan.
- Eremu berdean ezin dira beirazko edalontzi edo botilak sartu eta ez da objektu zulatzaile edo ebakitzailerik erabiliko.
- Igerilekuen dutxetatik sartu beharko da eta bainujantzi edo antzekoarekin jantzita. Ezingo da hesiaren gainetik salto eginez sartu.
- **Bainatu aurretik dutxatzea** nahitaezkoa izango da.
- Ez bainatu adin txikikoak bainujantzi edo bestelako babesik gabe.
- Ezin da erre igerilekuen bazterretan.
- 8 urtetik beherakoek bainatzeko guneetan pertsona heldu batek lagunduta egon beharko dute uneoro, baita plisti-plasta igerilekuan ere.
- Igerilekuen barruan ezin da erabili gainerako erabiltzaileei traba egiten ahal dien materialik, hala nola, koltxonetak, hegatsak eta flotagailuak, edo sorosleek igerilekuaren barruan gogaikarri izan daitekeela uste duen edozein material.
- Igeriketa ikastaroetarako eta triatloiko entrenamenduetarako ezarritako eremuak errespetatuko dira.

- **Lehentasunez igeri egiteko kale bat** ezarriko da, astelehenetik ostiralera (jaiegunetan izan ezik), 10:00etatik 16:00etara (kortxo ilaragatik mugatua).
- Eremu berdean ez dira onartzen beste erabiltzaileei traba egiten ahal dieten jolasak, bailioiak edo bestelako elementuak.
- **Hamaka gunea:** hamakak uzteko gunea, beste uda bat ere, padel-pisten ondoan kokatuko da. Hamakentzako gunea eskusiboa da, eta bertan ezin da beste materialik utzi, hala nola parrillak, perolak, eltzeak, etab. (berehala kenduko dira eta Udalaren esku geratuko dira). **Irailaren 20an**, kendu ez diren hamakak Udalaren esku geratuko dira, eta ezingo dira bueltan eskatu.

LEHENTASUNEZKOIA IZANGO DA SOROSLEEN ETA INTALAZIOTAKO ZAINZAILIEN AHOLKUEI KASU EGITEA

ASKALTEGIA ETA ERRETEGIAK ERABILTZEKO ETA ERRESERBATZEKO ARAUDIA

- Kiroldegiko sarbideen kontrolean edo 948 246 850 telefonora deituta erreserbatu beharko dira askaldegiko mahai zein erretegiak, erabilera-egunaren bezperatik edo egun berean, mahai eta erretegiak libre geratzen badira.
- Erretegi eta mahaien erreserbarako bi txanda ezartzen dira:
 - Goizeko txanda (bazkaria): 11:00etatik 18:00etara bitartean.
 - Arratsaldeko txanda (askari-afaria): 18:00etatik aurrera.
- Ezin izanen da askaldegi barrura aulkiekin sartu, mugikortasun murriztuko edo behar bezala justifikatutako kasu berezietan izan ezik; horiek aldeztu aurretik jakinarazi beharko dira.
- Pertsona batek erretegi bat edota bi mahai (12 mahaikide) bakarrik erreserbatu ahal izango ditu eguneko txanda bakar baterako. Mahaiak edo erretegiak libre badaude bakarrik egin ahal izango du erreserba eguneko beste txanda baterako.
- Erretegia erreserbatzeak ez du bermatzen mahai librerik dagoenik, eta mahaien erreserbak ez du bermatzen erretegirik dagoenik.
- Aurretik sarbideen kontrolean erreserbarik egin gabe, ez dira instalazioak erabiliko.
- Mahaiak, erretegiak, parrillak, harraskak eta gainaldeak bilduta eta hurrengo erabilerarako prest utzi beharko dira.
- Hondakinak botatzeko edukiontzia erabili beharko dira, eta hondakin mota bakoitza dagokion edukiontzira bota (plastikoa, ontziak, organikoa, errefusa, errautsa).
- Debekatuta dago erretzea.
- Debekatuta daude musika ekipoak edo soinua amplifikatzeko edozein gailu.
- Askaldegia ondoan dagoen pista estalian dagoen sukaldean zilegi da gasezko su txikiak erabiltzea. Ez da inolaz ere kanping gasik erabiliko erretegien eremuaren ondoan.
- Uneoro hartuko dira aintzat arduradunen oharrak, ahalmena baitute erabiltzaileei noiznahi eskatzeko ezarritako araudia bete dezatela, bai eta hura errespetatzen ez dutenak kanporatzeko ere.
- **Ordutegia:** igandetik ostegunera, esparru honek argia izango du gaueko 12:00ak arte; ostiral eta larunbatetan egunsentiko ordu bata arte. Argia itzali ondoren, pertsona guztiek alde egin beharko dute instalazioetatik.

INSTALAZIOAN ERRETZEA DEBEKATUTA DAGO, BERDEGUNEA BARNE

Erretzeko eremu bat egokitu da, padeleko pisten atzean kokatuta dago.